

# HITZA



## TRIKITIAREN HISTORIA, JASOTA

'Trikitixaren ganbara' erakusketa zabaldu dute Azpeitian, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Basazabalen duen bulegoan. Hainbat trikitilariren babesean egin dute inaugurazio ekitaldia // 6

## Irati Idiakezek bi domina lortu ditu snowboard egokituko mundialean

Snowboard egokituko Munduko Txapelketa jokatzeko ari da getariarra Katalunian, boardercross modalitatean  
 • Urrea eskuratu du taldeka, eta zilarra banaka • Beste domina bat lor dezake // 2



Zarauz Ibai Makazaga eta Imanol Larrañaga elkarrekin helmugaratu dira Mahasti Krosean // 2

## Orain plataforma ez da aurkeztuko udal bozetara

Orioko herri plataformak erabaki du iritsi dela ibilbidea bukatzeko momentua. Jasotako botoak «erantzukizun handiz» baliatu dituztela nabarmendu dute // 3

IHINTZA ELUSTONDO

Akumuladoreak eta bero urdina Programazio zentralizatua eta erroza Instalazio azkarra

**BEROGAILU EZIN HOBEA**

- ETKEKO BERRIKUNTZAK
- TELKOHUNEKAZIOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENA
- DEKORAZIOA
- KONPONKETAK
- ANTENAK

Aurrekontu personalizatua

Zigordia kalea, 11 • Araba kalea, 41 (Eroski ondoan) ZARAUZ • 943-13 04 33 - 943-13 33 08 - 619 52 35 39  
 azkuelek.com • azkuelek@gmail.com •

# Irati Idiakezek urrea eta zilarra lortu ditu mundialean

Snowboard egokituko boardercross modalitatean irabazi ditu bi dominak kirolari getariarrak • Hirugarrena ere kolkoratu dezake datorren asteburuan

**- JABI GONZALEZ TOSTON**

Getaria

Asteburu borobila izan du Irati Idiakez getariarrak. Snowboard egokituko Munduko Txapelketa ari da jokatzeko La Molinako (Katalunia) eski estazioan, eta dagoeneko kolkoratu ditu lehenengo bi dominak: urrezkoa taldekoa, eta zilarrezkoa bakarka. Biak ala biak boardercross modalitatean lortu ditu.

Goiko gorputz adarretan desgaitasuna duten kirolarien modalitatean ari da lehiatzen getariarra, eta larunbatean lortu zuen lehenengo domina: zila-

rezkoa. Zapore gazi-gozoa ere utziko zion horrek, akaso, finalerdietan denbora onena eginda sailkatu baitzen finalera. Azken proba erabakigarrian, ordea, gehiago izan zen Monika Kotzian poloniarra. Gauzak horrela, Idiakez ezin izan du iaz lortutako emaitza hobetu. Bigarren postua lortu zuen orduan ere.

Edonola ere, Idiakezek esan dezake lortu duela urrezko dominarik Munduko Txapelketan; igandean taldekoa irabazi zuena, hain justu. Leongo (Espainia) Raquel Martinezekin osatu zuen bikotea, eta, bistan denez, ezin



Irati Idiakez larunbatean lortutako zilarrezko dominarekin. FEDDF

hobeto moldatu ziren. «Ilusio handia egin dit Raquelekin urrea irabazteak. Oso sentipen onak izan ditugu», adierazi zion getariarrak Desgaitasun Fisikoa

duten Pertsonen Espainiako Kirol Federazioari behin domina lepotik zintziliek zuela. Hain zuzen ere, esan behar da Martinez izan dela Espainiarekin mundu-

ko snowboard txapelketa batean aritu den garun paralisia duen lehenengo kirolaria.

Idiakezekin batera jokatu zuen proba irerparatuta, txandaka aritu ziren bi kirolariak. Probaren lehenengo zatia Leongoan egin zuen, eta bigarren denbora onena lortu zuen, Poloniako ordezkararen atzetik. Getariarrak, beraz, ez zuen hutsik egin bigarren saiakeran, eta orduan bai, aurre hartu zion aurkari poloniarri. Bigarren zati bikoitza egin zuen, denbora onena markatuta. Zehaztu behar da, gainera, Espainiako selekzioak inoiz lortu duen emaitza onena dela Snowboard egokituko Munduko Txapelketan, orain arte ez baitzuen urrerik.

**Domina gehiagoren bila**

Bi domina gutxi ez, eta beste bat lortzen ahaleginduko da getariarra datorren asteburuan. Munduko Txapelketa oraindik ez da amaitu harentzat. Datorren igandera arte iraungo du, zehatz esateko, eta banked slalom modalitatean parte hartuko du Idiakezek. Gainera, iaz erakutsi zuen maila ikusita, aukera asko izango ditu hirugarren domina irabazteko. Izan ere, aipatutako banked slalomean ere munduko txapelkunordea da, gaur egun, getariarra.

# Lehia osasuntsua nagusitu da Mahasti Krosean

**- J. GONZALEZ TOSTON**

Zarauz

Gutxitan ikusten den irudia utzi zuen igandean jokaturako Mahasti Krosaren laugarren edizioak. Bizkarretik helduta, adiskide keinuan, helmugaratu ziren lehen bi sailkatuak: Ibai Makazaga oriotarra eta Imanol Larrañaga

azkoitiarra. Hori dela eta, sari banaketara arte itxaron behar izan zuten irabazlea bietako nor zen jakiteko. Bada, txipak Makazagari eman zion garaipena, eta hura izan zen txapela jantzi eta podiumeko goiko koxkara igo zena. Irabazleak bere pisua txakolin botiletan jaso behar zuen

saritzat, eta, ondorioz, haren kioloak neurtu behar izan zituzten. 68 botila irabazi zituen guztira Makazagak, eta Larrañagarekin partekatatu zituen.

Bi korrikalariak hasieratik hartu zuten lasterketaren burua, eta lasterketa osoan eutsi zioten. Aurkaria atzean uzteko ahalegi-

nak ere egin zituzten erritmoa bizituta, baina indarrak guztiz parekatuta zituztenez, bi kilometroren faltan lasterketa batera egitea adostu zutela aitortu zuten. Horrez gain, azaldu zuten asko ari zirela arriskatzeko eta baldintzak ez zirela korrika egiteko egokiak: lokaztuta zegoen lasterketa eremua, eta giroa ere sargoria zen. Hori horrela, elkarrekin egin zuten 7,2 kilometroko bide osoa, 32 minutu eta 25 segundotan. Ia bi minutura iritsi zen podiuma osatu zuen Mikel Usandizaga aiarra (34:02).

Emakumezkoetan, aldiz, Ainhoa Caporossi zumaiarra izan zen azkarrena. Nagusitasunez gailendu zen, gainera; izan ere, emakumeetan aurrena izan zen hasieratik bukaerara. 39 minutu eta 36 segundo behar izan zituen zumaiarrak ibilbide osoa egiteko. Kontrara, estuago izan zen bigarren posturako lehia; izan ere, 11 segundo eskaseko aldeko besterik ez zion atera Ainhoa

Usandizaga aiarrak (41:12) Ioana Osa ondarrutarrari (41:23).

**Etxekoak bosgarren**

86 korrikalari izan ziren orotara Talaiberri txakolindegia antolatutako lasterketan parte hartu zutenak, eta etxeko ordezkarien lana ere azpimarratzeko izan zen, ohorezko postuak lortu baitzituzten. Mikel Lasa (37:30) izan zen lehenengo zarauztarra gizonzkoetan, eta bosgarren helmugaratu zen. Etxeko emakumezkoetan artean, berriz, Aitzpea Lertxundik (48:12) lortu zuen denbora onena. Gainera, bosgarren sailkatu zen hura ere.

Lasterketa eta sari banaketa amaituta, korrikalariak nahiz haiek ikustera bertaratu ziren herritarrek hamaiketako egiteko aukera izan zuten Talaiberri txakolindegian atarian; izan ere, pintxo eta txakolin kopa eskaini zituzten euro batean. Han bildutako dirua Caritas erakundeari eman diote.



Imanol Larrañaga eta Ibai Makazaga, igandeko Mahasti Krosean. JABI GONZALEZ TOSTON

# Orain herri plataforma ez da aurkeztuko maiatzeko udal hauteskundeetara

«Ibilbidea bukatzeko momentua» iritsi dela esan du taldeak  
 • Jasotako botoak «erantzukizun eta ardura handiz» erabili dituztela eta askotan «erabakigarriak» izan direla azpimarratu du

## -AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Orain Orioko Aukera Independentea herri plataformak bere «ibilbidea bukatzeko momentua» iritsi dela erabaki du, eta pasa den ostiralean ohar bidez jakinarazi zuen ez dela aurkeztuko maiatzeko udal hauteskundeetara.

Duela hamabi urte sortu zuten plataforma hainbat oriotarrek. «Orioko Udalak zeraman martxa aldatzeko jaio zen taldea. Izan ere, jende asko ginen herriko hainbat eragiletan eta taldetan lanean genbiltzanak eta udalarekin deseroso geundenak. Batez ere, egiteko moduak ziren aldatu nahi genituenak, eta horretan saiatu gara hamabi urte hauetan», azaldu dute prentsa ohar bidez.

## Eskerrak emanez

Ibilbidea «gogorra bezain polita» izan dela aitortu dute. Gai asko jorratu dituztela, baina «guztietan jator eta zintzo» jardun direla azpimarratu nahi izan dute. «Ja-



Orain herri plataformak 2015eko udal hauteskundeetara aurkeztu zuten taldea. ORAIN

rera eraikitzailea izan dugu beti ardatz, eta gure ekarpen guztiak oriotarren bizitza hobetzen laguntzeko izan dira», nabarmendu dute. Ildo horretan, jasotako botoak «erantzukizun eta ardura handiz» erabili dituztela eta askotan «erabakigarriak» izan direla ere gaineratu dute. «Lasai eta harro gaude egindako guztia- rekin».

Bukatzeke, eskerrak eman dizkiete beraingan konfiantza jarri duten herritarrei, baita beren jarduna aurrera eramaten lagundu dieten guztiei ere, «udaleko langileetatik hasita». «Eta nola ez gure zinegotziei, zuei tokatu zaizuelako aurpegia ematea: Jokin Izagirre, Miriam Uranga, Iñigo Arruti Txabola eta Jose Anjel Iparragirre Iparra».

# Orio eta Bermeo izan dira nagusi Oriako Traineru Jaitsieran

Emakumezkoetan, etxeko taldea nagusitu zen larunbatean, eta gizonezkoetan, bigarren izan ziren, Bermeoren atzetik  
 • Badok 13 ere bigarren izan zen

## -JUAN LUIS ROMATEZ

Negu giroarekin jokatu zen larunbat arratsaldean Oriako Traineru Jaitsieraren 29. edizioa, eta emakumezkoen etxeko taldeak lortu zuen bandera irabaztea hirugarren urtez jarraian. Gizonezkoen kategorian, berriz, Bermeorentzat izan zen bandera, baina lan ona egin zuen Orio Arraunketa Elkarteko gizonen talde nagusiak, bigarren postuan sailkatuta.

Guztira, kategoria eta ontzi mota guztiak batuta, 69 ontzi lehiatu ziren euripean jokatu zen arraun hitzorduan. Oraindik ere traineru ligak ofizialki hastera hiru hilabete inguru falta badira ere, arraun klubak taldeen prestakuntza findu nahian dabilta denboraldi berriari begira, eta asteburuko bezalako neurketak test gisa ulertzen dituzte, klub bakoitza une jakin horretan zer modutan aurkitzen den jakiteko.

Arraunzaleek ere adi-adi jarraitu zuten arraun hitzordua,

## Eskualdeko taldeak

### EMAKUMEAK

- 1.- Orio Orialki: 14:39,45
- 6.- Zumaia-Deltec: 15:26,87
- 8.- Zarautz-Gesalaga: 15:36,01

### GIZONAK

- 1.- Bermeo: 19:38,19
- 2.- Orio Orialki: 19:45,06
- 8.- Orio Orialki B: 20:39,86
- 9.- Getaria: 20:43,06
- 11.- Zumaia-Deltec: 20:46,60
- 12.- Zarautz-Gesalaga: 21:51,60
- 20.- Orio Orialki C: 22:11,88

### BETERANOAK

- 1.- Chapela: 14:40
- 2.- Badok 13: 14:46
- 7.- Zumaia: 15:37
- 21.- Badok 13 B: 18:40

eta jaitsierak iraun zuen bitartean euri zaparrada etengabea izan bazen ere, arraun elkartee- tako jarraitzaileak errio bazterrean egon ziren, aterkiak eskuetan hartuta.

# Oribarzarko hondartza berritzeko 9 milioi euro lortu dituela dio EAJk

## -ERREDAKZIOA

Orioko EAJk ohar bidez jakinarazi du Oribarzarko hondartza berritzeko bederatziko milioi euro eskuratu dituela EAJk Espainiako Gobernuko aurrekontuan. «Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikoko Ministeritzaren Kosta zuzendaritzak gauzatu du Oribarzarko hondartza zahar berritzeko proiektua», adierazi dute. Orioko Udaleko Hirigintza batzordean aurkeztu dute proiektua, eta aukera ezberdin guztiak aztertuko dituztela aurreratu dute jeltzaleek.

Proiektuan, besteak beste, Txurruka aterpetxea lekuz aldatzeko proposamena jasota dagoela azaldu du Orioko EAJk: «Oraingo kokalekua ordenazioz kanpo dago. Aterpetxea eraitsi eta berria egiteko sei milioi euro bideratuko dituzte. Beste hiru milioiak, berriz, behar diren azterketak, proiektua eta hondartza berritzeko lanak egiteko izango dira», zehaztu dute.

Proiektua aztertuta, Orioko EAJk uste du Oribararren historikoki egon den ontziralekua beldurazko eta proiektuan txer-

tatu behar dela, «ingurua behar den bezala garatzeko».

Bestalde, Txurruka aterpetxearen kokapen berriaren azterketa egin beharra dagoela iruditzen zaie jeltzaleei. «Alderdia dagoeneko ari da planteamendu eta kokapen berriak bilatzeko lanean. Bide horretan, datorren agintaldian egingo den lana funtsezkoa izango da Oribarzar ingurua berritzeko. Lanketa horretan, ezinbestekoa izango da eremuan eskumena duten beste administrazioen inplikazioa eta elkarlana».



Orio Arraunketa Elkarteko emakumezkoen taldea Oriaren Jaitsierako bandera astintzen. JUAN LUIS ROMATEZ

# Zumaiako 50 gazte joango dira apirilean Saharako kanpalekuetara

Darahli elkarteak ikasleekin antolatzen duen seigarren bidaia izango da aurtengoa  
• Proiektuak gauzatzeaz gain, saharar herriak bizi duen errealitatea ezagutuko dute

## - JUAN LUIS ROMATET

Zumaiako 50 gazte osatutako taldea Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara joango da apirilaren leian, Darahli elkarteak antolatutako bidaian. Erbestean bizi den saharar herriaren alde lan egiten duen elkarte horrek antolatutako seigarren bidaia izango da aurtengoa. Kanpalekuetan igaroko dituzten egunetan hainbat lanketa egingo dituzte, baita herri horrek bizi duen egoera lehen pertsona ezagutu ere.

Maddi Amilibia eta Nicole Arribillaga lehendabizikoz joango dira sahararren kanpalekuetara. Arribillagak gogoratu duen bezala, lau urtean behin antolatzen du Darahli kanpalekuetarako bidaia, nahiz eta pandemiagatik, bi urtez atzeratu behar izan duten azken irteera. «Pixkanaka, askotariko lanketak egiten aritu gara orain arte». Behin kanpalekuetara iristean, proiektu horiek gauzatzen joango direla gaineratu du Amilibiak. «Hainbat proiektu ditugu esku artean. Taldeka banatu gara, eta talde bakoitzak eginkizun zehatzak izango ditu. Orain joangogara lehenengo aldiz hara, eta gogo handia dugun».

Proiektu horiek praktikan jartzeko gogotsu agertu badira ere, kanpalekuetan bertan izango dituzten bizipenak irudikatzeak oraindik eta gogo handiago sorrarazten die gazteei. «Uste dut pila bat ikasiko dugula. Aurretik egon direnek kontatu digutena bakarrik dakigu, baina iruditzen



Ezkerretik, Enara Manterola, Samuel Ruiz, Lier Etxabe, Nicole Arribillaga eta Maddi Amilibia. J. L. ROMATET

zait balio pila bat barneratu eta han ikasitakoak bueltan ekarriko ditugula. Errealitate guztiz ezberdina da hangoa, eta beste buru batekin itzuliko naizela uste dut», esan du Amilibiak. Arribillaga iritziz berekoa da: «Hemengo gauzak gehiago baloratzen eta hango errealitatea ezagutzen lagunduko digula uste dut esperientziak. Hitzaldi batzuk entzun ditugu, eta han bizi dutenaren ideia bat egin dugu. Hala ere, hara joan arte ez dugu benetan ulertuko zer ari den gertatzen Saharan».

## Emozioak pil-pilean

Enara Manterola eta Lier Etxabe ere Saharara joango dira apirile-

an; biak ala biak aurrez egonak dira kanpalekuetan, 2018an egindako bidaian. Esperientzia «oso polita» izan zela gogoratu du Manterolak. «Espekatiba askorik gabe joan nintzen, eta emozio asko bizitzeko aukera izan nuen. Oraindik ez diet emozio horiei buelta eman, eta uste dut, orain joandakoan, gehiago gozatzeko aukera izango dudala».

Bidaia horiek saharar herriari lagutzeko baliagarriak direla du Manterolak, baina baita beste errealitate bat ezagutzeko ere. «Hura oso desberdina da. Beste kultura bat ezagutzen duzu, beste ohitura batzuk, eta gauza ezberdin asko ikusteko aukera es-

kaintzen dizu esperientziak». Aholkuak eman bai, baina lehendabizikoz joango direnei han biziko dutenaren inguruko pistarik ez diela emango esan du Manterolak: «Politagoa da euren kabuz bizitzea esperientzia».

Etxaberentzako ere bigarren bidaia izango da aurtengoa. 15 urte zituela joan zen lehendabizikoz. «Joan nintzenean, ume bat nintzen; orain helduagoa naiz, eta badut hara joateko gogo, batez ere hango jendearekin hitz egiteko eta elkarrizketa serioagoak izateko».

Pandemiagatik bidaia atzeratu izanak abantaila txiki bat ekarri duela ere azaldu du Samuel Ruizek, Darahli elkarte koordinatzaileak. «Gazteak helduagoak dira, eta esperientzia beste era batera biziko dute. Desberdina da 15 urterekin joatea ala 17-18 urterekin joatea».

Bidaia helburua gazteen sensibilizazioa bultzatea dela gogoratu du Ruizek, baina baita haien familia ere. «Zumaia bezalako herri txiki batetik 50 gazte joango dira Saharara, eta haien familia ere gaiaren inguruan ariko dira hizketan. Euskal Herriaren gurea bezalako egitasmo gutxi daude, eta zenbait lekutatik deitu digute esperientziak partekatzeko».

## Emakumeaz eta mendiaz solasaldia izango da gaur

**KIROLA** // Indamendi mendi bazkunaren 50. urteurrenako ekitaldien barruan, emakumeaz eta mendia inguruko mahai-ingurua izango da gaur Aita Mari aretoan, 19:30etik aurrera. Montse Lasterra, Nerea Iraola eta Amaia Aranzabal mendizaleak izango dira hizlariak. Ostegunean, berriz, Silvia Vidal alpinistaren *Un pas mes* dokumentala eskainiko dute zinema aretoan, ordu berean.



Familiak landatze lanetan. J. L. R.

## 60tik gora zuhaitz landatu dituzte Santiagoko dunetan

**INGURUMENA** // Zumaiako Zuhaitz Egunaren barruan, zuhaitz landaketa egin zuten igande goizean Santiago hondartzako dunetan, horien trantsizio guinea baso bihurtzeko asmoarekin. Familia giroan egin zuten landaketa, eta guztira, 63 zuhaitz landatu zituzten: hamabosna gurpitz, karraskil eta artelat, eta beste hemezortzi arte, Artadiko ezkurretatik ernaltutakoak.

## Antonio Aretxabala geologoaren hitzaldia, bihar

**GIZARTEA** // Antonio Aretxabala geologoak hitzaldia emango du bihar, baliabide materialen krisiaz eta energia trantsizioaz. 18:00etatik aurrera eskainiko du solasaldia, Aita Mari zinema aretoan. Piztu energia kooperatibak antolatu du saioa, eta gaztelaniaz izango da. Hitzaldirako sarrera, berriz, doakoa izango da. Geologoa izateaz gain, iker-tzailea ere bada bihar Zumaian izango den hizlaria.

## Zozketak

**28** ELIKADURA  
**ERRIGORA**

[ Zozketa zenbakia: 28 ]

Bi saski



## HITZA kideen TXOKOA

**29** SASKIBALOA  
**GIPIZKOA BASKET -  
HEREDA SAN PABLO BURGOS**

Martxoak 19 igandea,  
12:00etan, Donostiako Illunbe estacion  
[ Zozketa zenbakia: 29 ]

Sarrera bikoitz bat



Zozketan parte hartzeko deitu: 943-56 01 64 zenbakira edo webguneko ZOZKETAK atalean izena eman. Epea: Gaurtik martxoak 16, 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, ostirala, argitaratuko dira.

# Zestoako zaintza ekosistema proiektua aurkeztu dute

Zestoako zaintza ekosistemaren bidea nola egiten ari diren aurkeztu zuten ostegunean herriko eragileek • Proiektua zer puntutan dagoen ere azaldu zuten

## -ANDONI ELDUAIEN

Zaintzaren inguruan egiten ari diren lanketa aurkeztu zuten ostegunean, Zestoa. Mikel Arregi Zestoako alkateak, San Juan fundazioko Joseba Illarramendi zuzendariak eta Saioa Lasa psikologoak, Jesus Odriozola Zestoako jubilatuen elkarteak ideak, 3Z elkarteak Santi Ugartek eta EHUKo Antropologia Feminista ikerketa taldeko hiru ordezkarik parte hartu zuten saioan.

Duela lau urte heldu zituen Zestoa zaintza ekosistema osatzeko proiektuari. Udalak sustatuta ari dira gauzatzen lanketa, eta abiapuntu bezala bi datu eman zituen alkateak. Arregientzat «datu esanguratsua» da 53 urtean Zestoako biztanleen batez besteko adina 28 urtetik 49 urtera igo izana. Gizartearen «zahartzeari erantzun bat» eman behar zaiola azaldu zuen hark. «Asistentziaren ikuspegitik begiratuta, gaur egungo eta duela 50 urteko gizartearen ezaugarriak ez dira berberak. Beste zenbait gauzatan bezala, kontu honi ere aurre egin beharra dago».

Alkateak «tokiko estratergiari» eman zion garrantzia. «Adinaren zaugarritasunak eragindako beharren inguruan enpresa asko ari dira sortzen, handiak eta kanpokoak; zerbitzuak asko pribatizatzen dira. Zestoa sekulako zorrea dugu; hemen gai gara adinak sortutako beharrei eta zerbitzuei behar bezala bertatik aurre egiteko. Hori horrela, bat egin dugu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu gure erabakiguneak herrian bertan izatea». Proiektua «herritarren ongizaterako ezinbestekoa» izango dela nabarmentzen zuten Arregik.

## Koordinazioa, fundazioak

San Juan fundazioko Illarramendik adierazi zuen Zestoako eragile guztiak batu direla, etorkizunerako eraiki nahi den zaintza eredua aukeratzeko. «Hori oso herri gutxitan gertatzen da. Herritik sortutako eredua ari gara lantzen. Aukera dugu herriaren erabakitze, eta hori da proiektuaren ardatz sendoa».

Udalak eta fundazioak lankidetzak hitzarmena sinatu dute, eta fundazioak hartuko du proiektua lurreratzeko ardura. Zaugarritasun goiztiarra detektatzeko sistema martxan jarriko dute; herriko azpiegituren behar azterketa egingo dute; zaintza komunitarioa nahiz profesionala izartzeko ardua hartuko dute; proiektuaren pilotajea egingo dute aldundiaren Liburu Berdearen barruan; eta proiektuaren bideragarritasuna ahalbidetu dute.

## Lau urteko bidea

2019. urtera egin behar da atzera zaintza sistema proiektu horren hastapenetera jotzeko. San Juan fundazioan barne ariketa bat egin osten, 3Z elkarte eta biak lanak uztartzeko elkartu ziren. Barne ariketa hartatik ondorioztatutako *San Juan etxea* izeneko dokumentua sortu zuen fundazioak. Lasa psikologoak adierazi zuen «udalak interesa» erakutsi zuela, eta «egokia» ikusi zuela desberdinen artean zaintzaz

hausnartzeko mahaia sortzea. 2020. urtearen amaieran sortu zuten Adinduen Mahaia.

Mahai hark sustatuta, ikerketa demografiko bat egin zuten 2020an. 65 urtetik gorako mila lagun identifikatu zituzten herriaren baina, datuen arabera, 2035ean adin horretako 1.300 lagun izango dira Zestoa. Zaugarritasun arriskua detektatzeko azterketa demografikoa ere egin zuten; %54,5ekoa da herriko zaugarritasun tasa. Ondorioztatu zuten 65 urtetik gorako 164 pertsona bizi zirela bakarrik. Familia unitatea osatzen duten 65 urtetik gorakoak, berriz, 241 pertsona ziren orduan. 2035ean, aldiz, 250 lagun bakarrik biziko direla aurreikusten dute; horietatik 67 lagun, gainera, 80 urtetik gorakoak.

Datuak eskuetan, Izarraitz proiektua lantzen hasi ziren. Aldundiak 112.000 euroko dirulaguntza onartu zuen horretarako. «Zaugarritasunak eta bakardadeak eragindako informazio sistema lantzea lortu dugu. Udalak

ematen dituen laguntza guztien arabera, ahalmena dugu sistema informatikoaren bidez Zestoa arrisku egoeran zenbat pertsona dauden eta horiek zehazki non bizi diren jakiteko. Helburua da sistema komunitario orokor bat

**Ikerketen arabera, 65 urtetik gorako 1.300 herritar egongo dira 2035ean, Zestoa**

**Zestoako biztanleen batez besteko adina 28 urtetik 49 urtera igo da 53 urtean**

sortzea, zaintza behar denak zaintzeko», azaldu zuen. Egun, Zestoa zainduak izateko moduan dauden pertsonak identifikatzen ari dira, eta horretarako zer sistema komunitario behar den zehazten.

## EHUren ikerketa herrian

EHUKo Antropologia Feminista ikerketa taldeko Matxalen Lega-

rretak irakasleak eta Maider Barañano nahiz Alaitz Uria ikerlariek gauzatu dute ikerketa Zestoa; sei elkarrizketa eta bi talde eztabaida egin dituzte. Zaintzaren antolaketa Zestoa dauden baliabideak identifikatu dituzte, baita erronkak zehaztu ere. Zurruntasuna, baliabide falta eta familiaren nahiz etxearen mugak nabarmendu dituzte zetoarrek erronken artean.

Bestalde, elkarrizketak esan dute zaintza «eguneroko ekin-tza txikietatik» hasten dela, eta zaintza zerbitzuek «publikoak, unibertsalak, gertukoak, lan baldintza duinak bermatzen dituztenak eta euskaldunak» izan behar dutela. Horren aurrean, «persona ardatz izango duen arreta eredu» hobetsi dute. Era berean, zaintza ekosistema definitzeko «zailtasunak» nabaritu dituzte, eta erantzuna emateko «posizio partekatuta» bat aurkitu behar dela azaldu zuten ikerlariek, «komunitatea elementu komun gisa» hartuko duena.

3Z elkarteak Ugarte, berriz, San Juan fundazioarekin egindako harremanaz aritu zen, «alderdi profesionala sarera batu-ta» hartu duela zaintzaren kontua «zentzua» nabarmenduta. Zenbait herritako ereduak ere aztertu dituzte, eta Malen Etxearekin zein Gipuzkoako Senideekin zein taldearekin kolaboratu dute. San Juan fundazioarekin zaintza ekosistemaren ereduak marraztu dute, alderdi bakoitzak ere dezakeena hausnartzuz.



Kultur Etxeko aretoa goraino bete zuten herritarrek. ANDONI ELDUAIEN

# Elkarretaratzea deitu du Urola Erdiko Itaiak, Donostian gertatutako sexu erasoak salatzen

## —IHINTZA ELUSTONDO

Ertzaintzak 30 urteko gizon bat atxilotu zuen larunbat goizaldean Azpeitian, Donostiako etxebizitzaren batean bikotekideari sexu erasoak egitea egotzita. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak larunbatean ohar bidez jakinarazi zuenez, ostiral gauean, Donostiako ospitale batetik Ertzaintza bertaratzeko eskatu zuten, genero indarkeria kasu bat izan zitekeelakoan. Biktima emakume bat da, eta hark jakinarazi du erasoak ostegun gauean gertatu zela, Donostiako etxebizitzaren batean. Erasoaren egilea emakumearen bikotekidea zen gertaeraren ulean.

Gertatutakoaren berri izan ondoren, Ertzaintzak ikerketa abiatu zuen, eta larunbat goizaldean bertan atxilotu zuten ustezko erasotzailea, Azpeitian. Orain

goz, polizia ikerketek aurrera jarraitzen dute, sexu erasoaren ustezko delitua argitzeko. Biktimak babesteko eta urruntzeko agindua eskatu du, eta atxilotua epailearen aurrera eramanez polizia.

Erasoak salatzen aurrera eramanez polizia. Erasoa salatzen aurrera eramanez polizia.

Erdiko Itaiak elkarretaratzea egingo du gaur. Azpeitiko plazan jarri dute hitzordua, 19:30ean. *Erasotzaileen inpunitaterik ez* lelopean egingo dute protesta, eta indarkeria matxista orori aurre egin behar zaiela nabarmendu dute.

# Trikitilarien babesean zabaldu dute 'Trikitixaren ganbara' erakusketa

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Basazabal jauregian duen bulegoan trikitiaren historia bildu dute, hainbat euskarritan

- Aurpegi ezagun ugari bertaratu da inaugurazio ekitaldira

## —I. ELUSTONDO

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Basazabal jauregian duen bulegoan *Trikitixaren ganbara* «erakusketa historikoa» zabaldu zuten larunbatean. Eguerdian egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta trikiti munduko aurpegi ezagun ugari bertaratu zen ekitaldira. Hitzordua eskatzen zuten moduan, gainera, trikiti doinuaren artean alaitu zuten inaugurazio ospakizuna.

11:30ean elkartu ziren erakundeetako ordezkariak nahiz trikitilariak Sanagustin kulturgunean. Handik kalejiran joan ziren Alde Zaharrean barrena, Faustino Azpiazu *Sakabi* zenaren etxe parera iritsi arte. Han *Azpeitia* izeneko fandangoa jo zuten guztiek elkarrekin, Sakabi zenaren senitartekoak bertan zirela. Ondoren, kalejiran, Enparan kalean barrena, Basazabal jauregiaren iritsi ziren, eta han egin zuten erakusketaren inaugurazioa.

Andoitz Antzizar Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak idazkariak aurkeztu zuen ekitaldia. Lehenik, Agurtzane Elustondo elkartearen presidentek hartu zuen hitza. Hark nabarmendu zuen trikitiaren «transmisioa bermatzea» dela elkartearen zutabe nagusia, eta horretarako, hainbat

egitasmo garatu dituztela azken urteotan. Hain justu, horietako bat da larunbatean zabaldu zuten erakusketa, «trikitaren historiaren transmisioan katebegi bat gehiago». Erakusketa duen garrantzia nabarmendu nahi izan zuen Elustondok: «Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 1991n abiatu zen ofizialki, eta, hastapenetik hasita, trikitiari eskainitako museo edo interpretazio gune bat osatzea oinarritzeko helburuetako bat izan da, baita partaide guztion ametsa ere. Orain arte utopia baten moduan ikusi izan dugu, eta ametsa zena gaur errealitate bilakatu dela esan dezakegu».

## Trikitiaren historia, jasota

Trikitiaren historia bildu dute erakusketan, hainbat euskarritan: azalpen panelak daude, tesu zaharrak, Koldo Izagirrearen idatziak, trikitiaren erreferentzia zaharrenak, argazkiak, soinua, panderoak... Erakusketa posible egiteko Azpeitiko Udalak, bestelako erakundeek eta trikitiaren komunitateak emandako laguntza eskertu nahi izan zuen Elustondok. Era berean, erakusketaren «arima» nor izan den aipatu zuen: Haritz Garmendia. Txalo zaparrada luzea

eskaini zioten hari bertaratu zirenek, egindako lana eskertzeko. Era berean, Ibon Errazuk egindako lana ere aitortu nahi izan zuen Elustondok, baita Joseba Tapiarena ere.

Jarraian, Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak hitz egin zuen. Hark nabarmendu zuen Azpeitiko Udalak Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin urteak darमतzala elkarlanean, eta erakusketa elkarlan horren emaitza dela esan zuen. Pozik agertu zen alkatea aretoa leporaino bete zelako eta horrek trikitiari bailaran duen indarra erakusten duelako. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Azpeitian duen egoitza, eta orain erakusketan inauguratzea «ohore» bat izan da harentzat. «Hasiera bat da hau. Espero dugu elkartearen eta udalaren arteko harremanak aurrera jarraituko duela», adierazi zuen.

Ondoren, Eneritz Albizu Kultura batzordeburuak hartu zuen hitza, eta hunkituta agertu zuen. «Bailara hau trikitiaren sehaska da, eta kultur ekosistema osatzera dator pieza hau», esan zuen. Hark uste du ekarpen handia egin dezakeela erakusketak: «Nola garen eta zergatik garen erakusten du». Era berean, trikitiak euskarari egin dion ekarpe-



Goian, erakundeetako ordezkariak; behean, hainbat trikitilari. I.E.

nean egin nahi izan zuen azpimarra: «Beti ere erabat gure hizkuntzari lotutako jarduna izan da trikitiarena». Erakusketaren atzean, boluntario askoren lana dagoela aipatu zuen Albizuk, eta eskerrak eman zizkien haietako bakoitzari: «Trikitiaren eta hizkuntzaren zati handi bat galduko litzateke zuen lanik gabe».

Azkenik, Joseba Tapia trikitilariak Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen ibilbidearen errepaso egin zuen, kontakizuna pu-

blikoan ziren hainbat lagunentzako testigantzarekin osatuz. Bestek beste, Joxemari Iriondok hitz egin zuen.

Amaitzeko, pare bat pieza jo zituzten bertaratu ziren hainbat trikitilariak, eta hala, musika doinuaren artean agurtu zuten ekitaldia.

Erakusketa bisitatu nahi dutenek aurrez hartu behar dute ordua, 943-83 28 28 telefonora deituta edo [trikitixa@trikitixa.eus](mailto:trikitixa@trikitixa.eus) helbidera idatzita.

# GRI Castingseko langileek lana gal dezaketelako kezka azaldu du udalak

Ostegunean batzartu ziren Udal Gobernuaren ordezkariak enpresaren zuzendaritzarekin, horrek Arroabeko lantegia itxi eta han ari diren 61 beharginak kaleratzeko asmoa azaldu ondoren.



GRI Castings enpresaren lantegia, Arroabeko Sansinenea industrialdean. MAILLO OIARZABAL

**-NEREA URANGA** Zestoa  
Arroabeko Sansinenea industrialdean dagoen GRI Castings enpresa itxi eta hango 61 beharginak kaleratzeko erregulazio espedientea aurkeztuko duela iragarri zuen joan zen astean enpresak. Erabaki horren aurrean, Zestoako Udalak «kezka» adierazi nahi izan du, GRI Castingsen ari diren 61 beharginen euren lanpostua gal dezaketelako.

Horregatik, joan den ostegu-

nean Mikel Arregi Zestoako alkatea eta Marga Eizagirre zinegotzia enpresaren zuzendaritzarekin bildu ziren, eta udalaren kezka adierazteaz gain, «langileekin akordiora iristeko eta enpresaren lan jarduna ez eteteko ahalegina egiteko» eskatu zieten enpresaren arduradunei udal ordezkariak. Udalak azaldu duenez, osteguneko bilera enpresaren zuzendaritzako ordezkariak «urteetako galeren» berri

eman zieten udal ordezkariari, eta dauden «zirrikitu guztiak aztertu» eta langileekin «akordiora iristeko ahalegina» egingo dutela adierazi zieten.

Zestoako Udalak gogorarazi du, udalerriaren eremuan ematen den «jarduera ekonomiko oro» eta, ondorioz, «lanpostuak sustatu eta zaindu» nahi dituela, jarduera horrek bete beharreko «berme guztiak errespetatzen» dituela zaintzarekin batera.

## Irudia



## Batzar jendetsua eta mamitsua Alonderon

Elizondo antzokia zenaz (Zentroa) eta Gaztetxearen lekualdatzeaz luze eta zabal aritu ziren ostiralean Zestoa, udalak deitutako batzar irekian. Alonderoko aretoa jendez gainezka zela eman zituen azalpenak Udal Gobernuak. Besteak beste, eskaintza berria jarri zuen mahai gainean: Gaztetxearen egungo egoitza beste bost urterako Gazte Asanbladari uztea, gaur egungo Gaztetxea arriskuan dagoela «erabat gezurtatuz». Gazte Asanbladako kideen zein bestelako herritarren galderak ere erantzun zituzten. DANBOLIN

## Gaur hasiko dituzte Zubimusu kalea asfaltatzeko lanak

### -N. URANGA

Zubimusu kalean errepidea eta aparkalekuak asfaltatzeko lanak hasiko ditu gaur Zestoako Udalak.

Obra horiek tarteko, udalak herritarrei jakinarazi die ezingo dela autorik aparkatu Zubimusu kalean gaurtik ostiralera –egun horretan lanak bukatzea aurreikusitako dute–, 07:30etik 19:00etara

bitartean. 19:00etatik 07:30ak artean, ordea, libre izango da kale horretako aparkalekuak erabiltzea.

Trafikoari dagokionez, lanegatik ez dutela etengo jakinarazi du erakundeak. Horrela, autoek Zubimusu kaleko bi norabideetan ibili ahal izango dute lanekin bitartean, baina txandaka zabalduko dute pasoa.

## Eskelak

Hilberriak Urteurrenak Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAN jarrita, Goierriko Hitza eta Atarian DOAN

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu urolakosta@hitza.eus  
Tel.: 943-89 00 17



### Igor Iñurritegi Lasa

Hilaren 10ean hil zen 42 urte zituela.  
-Goian bego-

Gurasoak: Alberto eta Maria Dolores; anaia: Gorka; osaba-izebak: Maria Luisa eta Jose Mari (†), Maria Dolores eta Javi (†), Juan Mari, Conchi eta Sebastian, Jose Ignacio; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

LEGAZPiIn, 2023ko martxoaren 14an.



### Patxi Kepa Uriarte Perez

*Hainbestetan abestu dugu elkarrekin.  
Zuk utzitako lorratza betiko da gurekin.  
Jarraituko dugu batera kantatzen mila eresi  
...Eternitatean...*

*Aurrez aurre izan arte, Patxi*

Eresoinka taldea

TOLOSA, 2023ko martxoaren 14an

**Argitaratzailea:** Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.  
**Lege Gordailua:** SS-0188-04. ISSN. 1697-8587  
**Zuzendaria:** Iñintza Elustondo.  
**Helbidea:** Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.  
**Zarautz:** Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.  
**Posta elektronikoa:** urolakosta@ukt.eus.  
**Webgunea:** urolakosta.hitza.eus.  
**Zuzendariordea:** Aritz Mutiozabal.  
**Publizitate:** Urola Kosta: 673 69 90 95.  
**Zarautz:** 607 61 52 39. zarautz@ukt.eus.  
**Orio-Aia:** 607 49 87 23. orio@ukt.eus.  
**Zumaia:** 685 71 20 90. zumaia@ukt.eus.  
**Getaria:** 607 49 87 23. getaria@ukt.eus.  
**Azpeitia:** 607 49 87 25. azpeitia@ukt.eus.  
**Azkoitia:** 607 49 87 27. azkoitia@ukt.eus.  
**Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama:** 607 49 87 27. zestoa@ukt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):  
**943-30 30 35**



Temperatura  
**V 15°**  
**A 8°**

Mareak

Itsasgora	08:32-21:04
Metroak	3:38-3:30
Itsasbehera	02:19-14:44
Metroak	1:11-1:32

[zarauzkohitza.eus](http://zarauzkohitza.eus) / [urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus)

## Agenda

### Gaur, asteartea

#### Bilera

**Azpeitia.** Keinu hizkuntzaren interprete zerbitzuaz bilera, 16:00etan, udaletxeko bosgarren solairuan.

#### Ipuin kontaketa

**Zestoa.** Kontaidazu ipuin bat saioa, Aratz Etxeberriaren eskutik, 17:30ean, liburutegian.

#### Tailerra

**Azpeitia.** Eskulan tailerra LH1-LH2ko haurrentzat, 17:30ean, udal liburutegian.

### Bihar, asteazkena

#### Mahai ingurua

**Zestoa.** Tortura Euskal Herrian mahai ingurua, izen bereko jardunaldien barruan. 19:00etan, Portale kultur elkartearen.

### Martxoak 16, osteguna

#### Aurkezpena

**Azpeitia.** Urdinduz egitasmoaren aurkezpena, 18:00etan, Sanagustin kultur gunean.

#### Ipuin kontaketa

**Azkoitia.** Lupe Lekuonaren Puhuy Txoria ipuin kontaketa saioa, 17:30ean, Aizkibel liburutegian.

#### Literatura

**Zarautz.** Gurasoak ere ipuin kontalari irakurketa txokoa, Miriam Mendozaren eskutik, Sanz Enea haur liburutegian, 17:30ean.

### Martxoak 17, ostirala

#### Musika

**Azpeitia.** Betto Snay Bilbon bizi den rapero agollarraren kontzertua. Etxerik gabeko pertsonen egoera hobetzeko Kartoizko Ohea proiektua sortu du. 19:30ean, Sanagustin kultur gunean.

**HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Larunbaterako prestatu zuten dantza emanaldiaren une bat. ANDONI ELDUAIEN

## Dislegi elkarteak festa giroan herriratu du dislexiaren gaia

Dislegiren Debabarreneneko delegazioak antolatuta, herritar ugari bildu zen larunbatean Azkoitiko plazan • Dislexia zer den eta horren eraginak zein diren gizarteratu zituzten

– **ANDONI ELDUAIEN** Azkoitia  
 Dislegi Gipuzkoako dislexia elkarteak dislexiaren festa egin zuen larunbatean Azkoitiko plazan nagusian. Euriak ez zuen zapuztu jaia, eta Kontzejupearen bueltan girotu zuten herria, han sortutako su txikia herri osora zabaltzeko. Dislexia zer den jendartean ezagutarazteko asmoz egin zuen festa elkarteak, Dislegiren Debabarreneneko delegazioak eta herriko hainbat familiak antolatuta.

Inga Segurola Dislegiren Debabarreneneko delegazioaren presidentek larunbatean azaldu zuenez, 2015ean sortu zen elkarteak, eta ia ez eratu zuten delegazio hori. Haren arabera, Dislegi elkarteak eta delegazioa bera ezagutarazteko asmoz antolatu zuten larunbateko festa Azkoitian, presidentek beharrezkotzat jo baitu dislexia gizarteratzea: «Dislexia ez da gaixotasun bat; dislexia duten pertsonen baldintza jakin bat izaten dute. Oso

erraza izaten da ikusten dena onartzea, baina dislexiaren gaia ez da ikusten, eta halakoetan, oso zaila da hura onartzea. Beraz, dislexia ikusarazi egin behar dugu». Horrez gain, taldeak badu bestelako xederik ere. Segurolak azaldu zuenez: «Inguruan dauden zentroetan irakasteak formakuntza ematen hasi nahi dugu elkarlanean».

Hain justu, larunbatean informazio mahaia jarri zuten herriko plazan, eta ospakizun giroan, bestelako ekintza asko izan ziren helduentzat nahiz haurrentzat. Dislexia zer den, inguruko pertsonen artean nahasmenak nola igar daitekeen eta hura duten pertsonen aurrean nola jokatu behar den azaldu zuten udal txetxe azpian jarritako informazio panelen bidez. Halaber, elkarteak kideak herritarrei azalpenak ematen ere aritu ziren. Plazan jarritako mahaian, berriz, dozentzia haur bildu zen, izan arpegiak margotzeko edo marrazkiak



Silvia Elorriaga idazlea, herriko hainbat gaztetxerekin. A. E.

egiteko. Musika eta dantza ere protagonista izan ziren; izan ere, gorputzak gogotsu astindu zituzten herritarrek egun horretarako prestatutako koreografiaren bidez. Silvia Elorriaga idazlea ere Azkoitian izan zen, eta hark irakurketa erraza zer den azaldu zuen eta liburuak sinatu zituen. Dislexiari eta dislexia duten lagunei eskaintako bertsoak ere

abestu zituzten zenbait gaztetxok.

Dislexiaz kontzientziazteko lanketa ez zuen larunbatean amaitu Dislegi; izan ere, martxoaren 29rako hitzaldi bat antolatu du elkarteak Azkoitian. *Dislexia, zer da eta zer egin?* izenburupean arituko dira orduan Elkarguneko Oteiza aretoan, 19:00etan.